

En la Casa Consistorial del M. I. Ayuntamiento de Auritz/Burguete siendo las 19:00 horas del día 4 de octubre de 2021, se reunió el Ayuntamiento al objeto de celebrar sesión extraordinaria con la asistencia de los Sres/as. Concejales/as D. Juan Miguel Juandeaburre Ainciburu, D^a. Ana Azanza Burusco y D^a Miren Oyarbide Lapazaran y D. Mikel Gaztelu Alonso bajo la presidencia del Sr. Alcalde D. José Irigaray Gil, actuando como Secretaria de la Corporación Doña Marisol Ezcurra Iurre.

1.- APROBACIÓN DE ACTAS DE SESIÓN DE 16 DE JUNIO, 28 DE JUNIO, Y 28 DE JULIO DE 2021.

La Corporación acuerda por unanimidad, aprobar las actas de sesión de 16 de junio, 28 de junio y 28 de julio de 2021.

2.- CONOCIMIENTO DE RESOLUCIONES DE ALCALDÍA EMITIDAS DESDE EL 16 DE JUNIO HASTA EL 30 DE SEPTIEMBRE DE 2021.

Informa el alcalde Sr. Irigaray del contenido de las Resoluciones de Alcaldía de 16 de junio a 30 de septiembre de 2021, que constan en el expediente de la sesión, dándose los miembros de la Corporación por enterados.

El concejal Sr. Juandeaburre pregunta respecto a la Resolución N^o 95/2021, si los hermanos Dufur por pastos de Berroaundia pagan una tasa del 50%. Le responde el alcalde Sr. Irigaray que así es pero que esa tasa es variable en función de los trabajos de mantenimiento que se ejecuten anualmente y su valoración.

En relación a la Resolución N^o 106/2021 si a Ziklo se le exime de pago por uso de la casa de cultura. El alcalde Sr. Irigaray le responde que la celebración del RAK 2021 es una actividad beneficiosa para el municipio por lo que se le exime del pago de tasa alguna.

Por último, pregunta sobre la Resolución N^o 116/2021 a que se debe el pago de 1.512,50 € a Caja Rural de Navarra. Le responde la Sra. Secretaria que el pago de esa cantidad es debido a la implantación de la administración electrónica.

3.- AYUDAS INFRAESTRUCTURAS GANADERAS, ADJUDICACIÓN REDACCION PROYECTO

El alcalde Sr. Irigaray comenta que por un lado en reunión con los ganaderos celebrada el día de la feria les comentó las actuaciones que la Corporación estimaba que había que ejecutar, tales como el asfaltado de Maiorlategia por considerarlo el principal acceso al polígono ganadero de Antsobi, sustitución de askas de cemento de Atalozti que se encuentran deterioradas y los nuevos cierres que se generen del reparto de pastizales que se está trabajando. Los interesados lo vieron correcto y propusieron además estudiar el recrecimiento en altura de la manga de Antsobi. Por lo expuesto, propone encargar a EKILAN la redacción del proyecto perceptivo para la concurrencia a la mencionada convocatoria donde queden plasmadas las mejoras expuestas.

La Corporación acuerda por unanimidad, aprobar el encargo de redacción del proyecto de infraestructuras ganaderas a Ekilan contemplando éste las mejoras expuestas y aprobar el gasto con cargo a la partida presupuestaria 1 4121 6810000.

4.- RATIFICACION SOLICITUD AYUDAS ACTUACIONES FORESTALES Y APROBACION PROYECTO

Toma la palabra el alcalde Sr. Irigaray, que informa que publicándose convocatoria de ayudas a actuaciones forestales 2021-2022 se presentó proyecto en el que se incluían actuaciones en pistas forestales que se quedaron fuera en convocatoria anterior, así como los trasmochos que también se dejaron de hacer y se vuelven a tener en cuenta para esta convocatoria. El proyecto asciende a la cantidad de 24.479,55 €, y la redacción y dirección de obra tienen un coste de 2.962,03 €.

Estando conformes la corporación, se acuerda por unanimidad:

- 1º.- Aprobar el gasto con cargo a la partida presupuestaria 1 4121 6810001
- 2º.- Ratificar la solicitud de ayudas presentadas a la convocatoria de actuaciones forestales y el proyecto presentado y redactado por Ekilan, cuyo coste asciende en total a 27.441,58 euros.

5.- CONVOCATORIA AYUDAS PDR. PROYECTO A PRESENTAR.

Toma la palabra el alcalde Sr. Irigaray que informa que la convocatoria del Plan de Desarrollo Rural (PDR) ya se ha publicado dando un plazo hasta el 11 de noviembre para presentar proyectos al mismo. Que, estudiadas las necesidades más urgentes, el actual parque infantil está en unas condiciones deplorables y propone rediseñar la zona convirtiéndolo en un espacio multigeneracional e integrador. de manera que, en el espacio aparte de juegos infantiles, haya una zona para actividades juveniles y otra acondicionada con elementos de ejercicio para adultos, sin olvidar a población disminuida.

La Corporación acuerda por unanimidad, aprobar la presentación a la convocatoria del proyecto de reconversión del actual parque infantil en un espacio multigeneracional e integrador encargando el proyecto correspondiente.

6.- CONVOCATORIA 1,5% CULTURAL MINISTERIO DE FOMENTO. PROYECTO ANTIGUAS DEFENSAS Y CAMINO DE SANTIAGO.

El alcalde Sr. Irigaray expone el proyecto de mejoras del Camino de Santiago presentado conjuntamente por Erro, Valcarlos, Roncesvalles y Burguete a la convocatoria de ayudas del Plan del Pirineo no consiguió ayuda por lo que se está trabajando con el Departamento de Turismo. No obstante, teniendo en cuenta que la zona de actuación en lo que concierne a Burguete está dentro del BIC (Bien de Interés Cultural) propone estudiar la posibilidad de presentar la actuación a la convocatoria que presumiblemente saldrá a principios de año del 1,5% Cultural del Ministerio de Fomento.

La Corporación acuerda por unanimidad, aprobar lo propuesto por el Sr. Alcalde con objeto de conseguir fondos para mejorar la pavimentación desde la trasera de las casas de Aguio a Loigorri y la reconstrucción del muro de la huerta de Loperena.

7.- APROBACION PLIEGO CONDICIONES VENTA PARCELAS KANALEBURUA.

El alcalde Sr. Irigaray comenta que tras la aprobación de la venta de las parcelas de Kanaleburua para la construcción de vivienda protegida con el objeto de construir primeras viviendas, se debe aprobar un pliego de condiciones que regule la enajenación de las parcelas por lo que la Secretaria ha confeccionado el pliego que se propone y que obra en el expediente a falta de determinar algún punto concreto. Así mismo, informa que se debe aprobar la alienabilidad del bien, de conformidad con el artículo 122 del Reglamento de Bienes de las Entidades Locales de Navarra, así como el pliego de condiciones que regirá la misma (art. 125 y ss. del mismo cuerpo legal) y finalmente se debe constituir una comisión por lo que se debe acordar quienes van a formar parte de la misma.

El concejal Sr. Juandeaburre pregunta por el tipo de IVA que hay que aplicar a la venta, respondiéndole la Secretaria que precisamente ese es uno de esos puntos y que está esperando una respuesta a la consulta que hizo a la Hacienda Foral para su clarificación. La Corporación acuerda por unanimidad:

- 1º.- Proceder a la venta de las parcelas 272 y 273, polígono 5, en Kanaleburua, por el procedimiento de subasta y por los precios base de licitación fijados en los pliegos.
- 2º.- Declarar la alienabilidad de los bienes por tratarse de unos bienes patrimoniales.
- 3º.- Aprobar el pliego de condiciones que ha de regir la venta de las parcelas con destino a la construcción de viviendas de VPO.

8.-FINANCIACION OBRAS, PRESTAMO CAIXA Y MODIFICACION PRESUPUESTARIA

Toma la palabra el alcalde Sr. Irigaray, que informa que como años anteriores y con el fin de afrontar el adelanto de una serie de actuaciones subvencionadas por el Gobierno de Navarra entre ellas, la pavimentación Ipetea, la renovación de alumbrado público, actuaciones forestales, obras de intervención en el Patrimonio Arqueológico y Paleontológico etc, es necesario solicitar un préstamo de tesorería tal y como se ha hecho otras veces, de 60.000 por un periodo de tiempo de 6 meses, si bien en cuanto se abonen por el Gobierno de Navarra las subvenciones concedidas se procederá a la inmediata cancelación de dicho crédito.

La corporación estando de acuerdo aprueba por unanimidad:

- 1º.- Solicitar a la Caixa un préstamo de tesorería de 60.000,00 euros. Préstamo que se cancelará en cuanto se reciba del Gobierno de Navarra las subvenciones concedidas.

9.- SOLICITUD FORMULADA POR MARIA ESTHER DUFUR OHARRIZ PARA COMPRA TERRENO MUNICIPAL

El alcalde Sr. Irigaray informa Doña María Esther Dufur Oharriz ha presentado una solicitud para la compra al Ayuntamiento de unos metros cuadrados que no especifica cantidad alguna en su solicitud, pero que corresponde al espacio comprendido entre la trasera de su casa y el seto del prado de Herederos de Anastasia Reca Garate (Parcela catastral 153 del Polígono 5). Añade que el mencionado terreno en la actualidad, aparece en el catastro municipal como propiedad privada de los Herederos de Anastasia Reca Garate. Que en 2014 se solicitó a la Sección de Comunales un informe al respecto concluyendo el mismo que con la documentación aportada la subparcela D era comunal

del Ayuntamiento y que se trataba de un error en la implantación del catastro. No obstante, la anterior Corporación parece que investigó el caso argumentando que también podía deberse a cambios debidos a la concentración parcelaria.

Toma la palabra la Secretaria que informa que en la pasada legislatura ya se intentó resolver este asunto conforme al informe de comunales. De hecho y aprovechando que estaba la técnica de catastro se convocó a los herederos, en concreto a la Sra. Gloria Urtasun Reca a la que se le informó del informe de comunales, y se le dio, previa petición, una copia. La Sra. Urtasun Reca dijo que lo estudiaría y que antes de que se fuera la técnica contestaría, pero no lo hizo y el expediente no siguió adelante.

La Corporación acuerda por unanimidad,

1) Estudiar la titularidad del terreno en cuestión, dejando en suspenso la resolución de la solicitud formulada por Doña María Esther Dufur Oharriz hasta la aclaración de la propiedad.

2) Solicitar a la Sección de Infraestructuras Agrarias informe de las modificaciones que tuvo la parcela en el proceso de concentración parcelaria.

10.- MODIFICACION ORDENANZA COMUNALES (LOTES DE LEÑA).

El alcalde Sr. Irigaray comenta que existen viviendas como las rehabilitadas en la Casa Consistorial, que carecen de cocinas de combustión de leña. Por lo que se puede dar la paradoja de que sus moradores cumplen todos los requisitos para el aprovechamiento de lotes de leña y carecen de elementos capaces de aprovechamiento de este combustible. Es por ello que propone aprobar inicialmente una modificación de la Ordenanza reguladora de aprovechamientos comunales en su Título V, Aprovechamiento de leña de hogares en el que se añada al Artículo 51, un párrafo que diga:

Aquellas viviendas que fehacientemente el Ayuntamiento tenga constancia de que no disponen de infraestructura para combustión de madera, aun cumpliendo sus unidades familiares todos los requisitos del Artículo 16, no tendrán derecho a este aprovechamiento.

La Corporación acuerda por unanimidad, aprobar inicialmente la modificación propuesta.

11.- APROVECHAMIENTO FORESTAL 2021.

El alcalde Sr. Irigaray expone que se ha recibido el estadillo y valoración de la entresaca de alerces y Douglas a llevar a cabo en el paraje Zakarrola del monte Bidausi cuya valoración asciende a 18.704 € por lo que procede la aprobación del correspondiente pliego de condiciones de venta que se halla en el expediente.

La Corporación acuerda por unanimidad, aprobar el pliego de condiciones para la venta del lote de Zakarrola-Bidausi, correspondiente al aprovechamiento de 2021.

12.- ADHESIÓN AL CONVENIO INTERCAMBIO DE INFORMACIÓN Y COLABORACIÓN EN LA GESTIÓN E INSPECCIÓN TRIBUTARIA ENTRE HACIENDA TRIBUTARIA DE NAVARRA Y LOS MUNICIPIOS DE NAVARRA

Toma la palabra la Secretaria, que informa de la posibilidad de que el Ayuntamiento se adhiera a un convenio marco aprobado por el Gobierno de Navarra, con los objetivos de intercambio de información con trascendencia tributaria y colaboración en la gestión e inspección tributaria.

Se acuerda por unanimidad, adherirse al convenio marco de intercambio de información y colaboración en la gestión e inspección tributaria entre hacienda tributaria de navarra y los municipios de navarra, trasladando al Gobierno de Navarra, el acuerdo adoptado y el convenio firmado para su tramitación.

13.- APROBACION PLAN PARA LA NORMALIZACION DEL USO DEL EUSKERA 2021-2023

Toma la palabra el alcalde Sr. Irigaray que informa sobre el plan para la normalización del euskera 2021-2023, elaborado por la técnica de euskera, que recoge, tras un diagnóstico de la situación del euskera, las acciones y propuestas a desarrollar durante los próximos tres años.

Siendo las líneas de trabajo principales las siguientes:

- Garantizar y aumentar la transmisión del euskera (familia, escuela, euskaltegi)
- Impulsar el uso formal e informal del euskera entre los niños/as y los jóvenes puesto que son el motor del euskera en nuestra zona
- Ampliar los ámbitos de utilización del euskera (servicios públicos, cultura, ocio...)
- Impulsar la compactación de los euskaldunes y, en general, fomentar actitudes favorables hacia el euskera (grupos de conversación, medios de comunicación en euskera, ...)

Estudiado el plan presentado, se acuerda por unanimidad:

1.- Aprobar el Plan para la normalización del uso del euskera 2021-2023.

2º.- Dar traslado del acuerdo adoptado a la técnica de euskera para su conocimiento y efectos oportunos.

INFORMACION VARIA.

Retirada de tubos protectores de plantaciones.

El alcalde Sr. Irigaray, informa que en el auzolan se retiró una gran cantidad de tubos protectores de la repoblación de Abrau con el consiguiente beneficio para la plantación y para el medio ambiente, pero que puestos en contacto con la Mancomunidad de Residuos Bidausi para llevarlos al lugar correspondiente han surgido problemas ya que no está claro que hacer con ellos. Añade que tanto la Mancomunidad y la Alcaldía trabajan conjuntamente para eliminar esos residuos y que en este momento están en contacto con una empresa de Cintruénigo.

La Corporación se da por enterada.

Actos en torno a San Juan Bautista.

El alcalde Sr. Irigaray, informa que, aunque las fiestas patronales se tuvieron que suspender por la pandemia, se realizaron varios actos cumpliendo las medidas sanitarias correspondientes como la colocación de los espinos o el reparto del queso y otros

programados como las dianas no se pudieron celebrar a causa del mal tiempo. Añade que quiere mostrar el agradecimiento a la juventud por la implicación en ellos.

La Corporación se da por enterada.

Corte telefónico.

El alcalde Sr. Irigaray, informa que trasladó a la empresa Movistar su malestar y el de los abonados de la localidad por el corte de comunicaciones sufrido desde el 8 de julio hasta media tarde del día 12 y pidió la restauración inminente del servicio.

La Corporación se da por enterada.

Piscina fluvial de Antsoibi.

El alcalde Sr. Irigaray, informa que participó el pasado 14 de julio junto con representantes de Otsagabia, Ezkaroz y Aurizberri/Espinal en una reunión con técnicos de Sanidad en aras a buscar soluciones al tema de las piscinas fluviales donde les transmitieron que puede ser que a partir del próximo año se reanuden los análisis de la calidad del agua para cuya toma de muestras es necesario poner la presa. Por otro lado, ha mantenido contactos con el director del Servicio de Protección Civil y Emergencias, D. José Javier Boulandier Herrera para estudiar la posibilidad de considerarla de interés para el suministro de agua en caso de extinción de incendios forestales.

La Corporación se da por enterada.

Ayudas a pastos montanos.

El alcalde Sr. Irigaray, informa que ante la convocatoria de pastos montanos se estudió la posibilidad de mejoras en Atalozi, Menditxuri y Lindus consistentes en el mantenimiento de cierres, cambio de un aska en Atalozi y mejora de los caminos de Antufa y el que discurre entre las regatas de Atalozi y Urrereka, sin embargo, se desistió ya que era muy difícil que las características de esos parajes se llegase a la puntuación exigida en las bases de la convocatoria, por lo que se estudiarán otras vías de financiación.

La Corporación se da por enterada.

Propuesta de bucles en el proyecto Bicimugi.

El alcalde Sr. Irigaray, informa que se solicitó a las entidades locales por donde transcurrirá la ruta Eurovelo la presentación de anillos o bucles en torno a la ruta y que trasladó el que uniría Zokoeta con Otsamieta y la continuación del camino peatonal de Saroberri desde las casas del Irrintzi hasta el camping.

La Corporación se da por enterada.

Firma de apoyo transporte de desplazados por estudios y apoyo a la reserva de plazas.

El alcalde Sr. Irigaray, informa que firmó una petición a la consejería de Educación en la que se garantice el transporte de los jóvenes que se deben desplazar a Pamplona por motivo de estudios y apoyó la reserva de plazas en los institutos de Burlada e Iturrama.

La Corporación se da por enterada.

Cambio de luminarias

El alcalde Sr. Irigaray, informa que la empresa MEP (Montajes Eléctricos Pamplona) ha terminado los trabajos de cambio de faroles de lámparas de vapor de sodio estilo Fernandino por farolas de tecnología leed modelo Villa, mejorando en eficiencia energética y reduciendo la contaminación lumínica.

La Corporación se da por enterada.

Señalización de caminos.

El alcalde Sr. Irigaray, informa que con la entrada en vigor de la ordenanza de caminos se iniciado la señalización de las limitaciones de estos, adjudicando la fabricación de la señalética a Señales Goyo de Beriain por un importe de 5.953 €.

La Corporación se da por enterada.

Altos caudales en la depuradora Urrobi.

El alcalde Sr. Irigaray, informa que NILSA se puso en contacto para informarle de la llegada de altos caudales a la depuradora desde Auritz/Burguete, por lo que se comprometió inicialmente a estudiar las evacuaciones de las bajantes de los tejados para estudiar si puede ser la causa.

La Corporación se da por enterada.

Congreso de territorios pastoreados.

El alcalde Sr. Irigaray, informa que el 18 de septiembre dentro de un congreso de territorios pastoreados organizado por la UPNA y dirigido por la doctora Rosa María Canals Treseras se celebró una sesión de trabajo con una visita a Berrotxipi y Berroaundia donde se presentaron los trabajos llevados a cabo para la recuperación del pasto, la evolución y el manejo que se lleva.

La Corporación se da por enterada.

Jornada de conferencias organizada por Nabarralde y Jornadas Europeas del Patrimonio.

El alcalde Sr. Irigaray, informa que en ambos casos a habido una alta participación teniendo en cuenta la incertidumbre creada por la pandemia y el mal tiempo climatológico que acompañó a las segundas.

La Corporación se da por enterada.

Marcha al refugio Angel Oloron de Belagua.

El alcalde Sr. Irigaray, informa que el 11 de septiembre se iba a alojar en el frontón Josta-Leku una columna de montañeros que se dirigían desde Pamplona hasta el refugio de Belagua uniendo la GR de la Fuga de Ezkaba con la 11, sin embargo, ante la baja participación no se llegó a realizar. No obstante, la organización ha transmitido su agradecimiento por la disposición del Ayuntamiento y la intención de fijar la marcha en el calendario anual de montañeros.

La Corporación se da por enterada.

Repoblación forestal de Ipetea.

El alcalde Sr. Irigaray, informa que la ONG dentro del día del socio ha propuesto llevar a cabo una repoblación de robles para recuperar la regeneración del arbolado del monte de Ipetea. Aportando él parte de la planta que tiene sembrada en semilleros con bellotas locales.

La Corporación se da por enterada.

Asfaltado del camino de Ipetea.

El alcalde Sr. Irigaray, informa que la primera semana de septiembre se llevaron a cabo por la empresa Boreste las obras de renovación del camino de Ipetea por un importe de 37.371,41 €; financiado 7.644,36€ por el Plan del Pirineo, 20.308,45 € por la Consejería de Industria y el resto por el ayuntamiento.

La Corporación se da por enterada.

Obras de infraestructuras ganaderas.

El alcalde Sr. Irigaray, informa que se han llevado a cabo las obras previstas que consistían en el encementado de la manga de Antsobi y de parte del camino de Soroluzea y el cierre de la muga de Orreaga/Roncesvalles desde Joalegieta a Kuarentena.

La Corporación se da por enterada.

Problemas en la red de desagües a la altura de Sorginaritzaga y pluviales de casa del Celador.

El alcalde Sr. Irigaray, informa que, por urgencia dado el cegado de las conducciones, encargó a Iraola-Arteta la limpieza de las conducciones y la grabación del estado de las mismas para valorar el origen del problema, concluyendo el estudio que se trata de una deficiencia estructural que facilita la acumulación de jabones, por lo que anualmente se deberá llevar una limpieza de mantenimiento.

Por otro lado, añade que tanto con la arquitecta Sr. Larequi y con el ingeniero Sr. Infante han estado valorando las deficiencias de la recogida de aguas pluviales de Kanaleburua en las proximidades de casa del Celador y estudiar la solución al problema. La Corporación se da por enterada.

Reunión de AMMA Ibañeta.

El alcalde Sr. Irigaray, informa que dentro de la convocatoria para la identificación de Proyectos susceptibles de inclusión en el PASTD (Plan Autonómico de Sostenibilidad Turística en Destinos) se ha presentado en la Secretaría de Estado de Turismo la reconversión del sabaiao y del Piso del Maestro como centro internacional de estudios para la puesta en valor turística de los recursos culturales y naturales del Pirineo occidental, concretado fundamentalmente en el avistamiento de aves de Lindus y la excavación de Zaldua.

La Corporación se da por enterada.

Toma la palabra el concejal Sr. Juandeaburre, que informa de lo siguiente:

Reunión Mancomunidad Bidausi.

Se informa de que el contrato con Urbaset, empresa encargada de la recogida de basuras, finaliza el 31 de diciembre de 2021, por lo que procede renovar el contrato haciéndolo por un periodo de 5 años y con un presupuesto de unos 504.000 euros, unos 100.000 euro por año, en contraposición de los 90.000 euros anuales que actualmente cuesta el servicio.

Así mismo, informa del problema que se está generando con las cápsulas de café y su recogida ya que no se tiene claro que tipo de material es. La propuesta que se plantea es que se recojan a parte y se lleven por separado, poniendo contenedores especiales para ello, en varios puntos de la zona.

Por último, comunicar que la Mancomunidad ha recibido 14.600 euros para llevar a cabo los 5 pequeños proyectos siguientes:

- Calendario con los días de recogida de los traperos de Emaus
- Jarras de vidrio para la hostelería con el fin de consumir agua del grifo y evitar el uso de botellas de plástico.
- Bolsas de compra en unión con la Mancomunidad Eska-Salazar

- Premio a los pueblos mejores recicladores de plástico. Se les va a regalar mobiliario urbano, fabricado con el plástico reciclado.
- Instalación de expositores con instrucciones para la correcta separación de residuos, que se pondrán en lugares y fechas todavía sin designar.

14.- RUEGOS Y PREGUNTAS

No se formulan

Y no habiendo más asuntos que tratar, siendo las 21:00 horas. del mismo día, se levanta la sesión, de lo que doy fe.

Aurizko udaletxean 2021eko urriaren 4ko 19:00etan, Udala Bildu zen bilkura arrunta egiteko. Bertaratuak: Juan Miguel Juandeaburre Ainciburu, Ana Azanza Burusco, Miren Oyarbide Lapazaran eta Mikel Gaztelu Alonso zinegotziak, bilkuraburu alkatea, Jose Irigaray Gil izan zen eta idazkaria, udalbatzarena, Marisol Ezcurra Irure.

1.- 2021eko EKAINAREN 16ko, EKAINAREN 28ko eta UZTAILAREN 28ko BILKUREN AKTEN ONESPENA

Udalbatzak erabaki du aho batez 2021eko ekainaren 16an, ekainaren 28an eta uztailaren 28an egindako bilkuren aktak onartzea.

2.- 2021eko EKAINAREN 16tik IRAILAREN 30a ARTE ALKATEAK EMAN DITUEN EBAZPENEN INGURUKO INFORMAZIOA

Alkateak, Irigaray jk., 2021eko ekainaren 16tik irailaren 30a arte eman dituen ebazpenen inguruko informazioa eman du; horiek guztiak bilkurako espedientean daude eta udalkideak jakinaren gainean gelditu dira.

Juandeaburre zinegotziak galdetu du 95/2021 zk. duen Ebazpenaz, ea Dufur anaiek %50eko tasa ordaintzen duten Berroaundiako bazkalekuengatik. Irigaray alkateak erantzun dio horrela dela baina tasa hori aldatzen dela urtero egiten diren mantentze lanen eta horien balorazioaren arabera.

106/2021 zk. duen Ebazpenari dagokionez galdetu du ea Ziklori kultur Etxea erabiltzeagatik ordaintzeaz salbuetsita dagoen. Irigaray alkateak erantzun dio RAK 2021 egitea udalerrarentzako onuragarria dela eta horregatik tasa ordaintzetik salbuetsia dagoela.

Azkenik galdetu du 116/2021 zk. duen Ebazpenari buruz, zergatik ordaindu zaizkion Rural Kutxari 1.512,50 €. Idazkariak erantzun dio hori administrazio elektronikoa jartzeagatik ordaindu dela.

3.- ABELTZAINZA AZPIEGITURETARAKO DIRU-LAGUNTZAK. PROIEKTUAREN IDAZKETA ADJUDIKATZEA.

Irigaray alkate jaunak esan du, alde batetik, azokaren egunean abeltzainekin izandako bileran, Udalbatzak egin beharrekotzat jotzen zituen jarduerak azaldu zizkiela, hala nola

Maiorategia asfaltatzea, Antsobiko abeltzaintza-poligonorako sarbide nagusia delako, Ataloztiko porlanezko askak ordezkatzeko, hondatuta baitaude, eta larre banaketatik sortzen diren itxitura berriak. Interesatuak egokia ikusi zuten eta proposatu zuten Antsobiko maukari altuera gehiago ematea. Horiek horrela, proposatu du EKILANi eskatzea azaldutako hobekuntzak bilduko dituen proiektua presta dezala deialdira aurkeztu ahal izateko.

Udalbatzak aho batez erabaki du Ekilani abeltzaintzako azpiegituren proiektua idazteko enkargua onartzea, eta proiektu horretan adierazitako hobekuntzak jasotzea, eta gastua onartzea 1 4121 6810000 aurrekontu-partidaren kargura.

4.- BASO JARDUERENTZAKO DIRU-LAGUNTZEN ESKAERA ETA PROIEKTUAREN ONESPENA BERRESTEA

Irigaray alkate jaunak hartu du hitza, eta jakinarazi du, 2021-2022 aldirako baso-jarduketarako laguntzen deialdia argitaratu ondoren, proiektu bat aurkeztu zela, eta, bertan, aurreko deialdian kanpoan geratu ziren pistetako jarduketak sartu zirela, bai eta deialdi honetarako egin ez ziren eta berriro kontuan hartu diren lepatuak ere. Proiektuaren kostua 24.479,55 eurokoa da eta obraren idazketa eta zuzendaritza 2.962,03 eurokoa.

Udalbatza osoa ados egonik, aho batez erabaki da:

- 1.- 4121 6810000 kontu sailari lortutako gastua onartzea.
- 2.- Basogintzako jarduketan deialdira aurkeztutako laguntza-eskaera eta Ekilanean aurkeztu eta idatzitako proiektua berrestea; guztira, 27.441,58 euroko kostua du.

5.- LGP-ren DIRU-LAGUNTZA DEIALDIA. AURKEZTUKO DEN PROIEKTUA.

Irigaray alkateak hitza hartu du eta jakinarazi du Landa Garapeneko Planaren deialdia argitaratu dela eta proiektuak aurkezteko epea azaroaren 11n bukatzen dela. Premia gehien duten beharrak aztertu ondoren, egungo haur-parkea egoera penagarrian dagoela, eta eremua berriz diseinatzea proposatzen duela, belaunaldi anitzeko espazio integratzaile bihurtu dadin; horrela, haur-jolasez gain, gazteentzako jardueretarako gune bat eta helduentzako ariketa-elementuekin egokitutako beste bat egongo lirake, minusbaliotasunak dituztenak ahaztu gabe.

Udalbatzak erabaki du aho batez egungo haur parkea belaunaldi anitzeko espazio integratzaile bihurtzeko proiektua enkargatzea eta deialdira aurkezteko.

6.- SUSTAPEN MINISTERITZAKO %1,5 KULTURARENTZAKO DEIALDIA ANTZINAKO HARRESIAK ETA DONE JAKUE BIDEA.

Irigaray alkate jaunak azaldu du Erroibarko, Luzaidako, Orreagako eta Aurizko Udalek Pirinioetako Planaren laguntza-deialdira aurkeztutako Donejakue Bidea hobetzeko proiektuak ez zuela laguntzarik lortu, eta, beraz, Turismo Sailarekin ari direla lanean. Hala ere, kontuan hartuta Aurizko dagokion jarduketaren eremua BIC (Interes Kulturalerako

Ondasuna) delakoaren barruan dagoela, jarduketa Sustapen Ministerioaren % 1,5 Kultura izango omen den deialdira aurkezteko aukera aztertzea proposatu du.

Udalak erabaki du aho batez alkateak proposatutakoa onartzea, Agiorenetik Loigorriraino doan bidearen zolaketa hobetu eta Lopereneko baratzaren pareta berreraikitzeke dirua lortzeko.

7.- KANALEBURUAKO LURZATIAK SALTZEKO BALDINTZA PLEGUA ONARTZEA.

Irigaray alkate jaunak esan du, lehenengo etxebizitzak eraikitzeke Kanaleburuako partzelen salmenta onartu ondoren, baldintza-agiri bat onartu behar dela, partzelen besterentzea arautzeko. Hori dela eta, idazkariak proposatzen den eta espedientean jasota dagoen agiria egin du, puntu zehatzen bat zehaztu ezean. Era berean, jakinarazi du ondasunaren besterengarritasuna onartu behar dela, Nafarroako Toki Erakundearen Ondasunei buruzko Erregelamenduaren 122. artikuluekin bat etorriz, bai eta baldintza-pleguarekin ere (125. artikulua eta hurrengoak), eta, azkenik, batzorde bat eratu behar da eta batzorde hori nortzuk osatuko duten erabaki behar da.

Juandeaburre zinegotziak galdetu du zein den salmentari aplikatu beharreko BEZ mota eta idazkariak erantzun dio hori dela zehaztu gabe dagoen gauzetako bat eta Foru Ogasunari kontsulta egin ziola baina oraindik ez diotela erantzunik eman.

Udalbatzak erabaki du aho batez:

- 1.- 5 poligonoko 272 eta 273 lurzatiak, Kanaleburuan, saltzea, enkante bidez eta pleguetan ezarritako oinarritzko prezioetan.
- 2.- Ondasunen besterengarritasuna deklaratzeko, ondare-ondasuna direlako.
- 3.- BOE sailkapena duten etxebizitzak eraikitzeke lurzatiaren salmenta arautuko duen baldintza plegua onartzea.

8.- OBREN FINANTZAZIOA, CAIXAKO MAILEGUA ETA AURREKONTU ALDAKETA

Irigaray alkateak hartu du hitza, eta jakinarazi du, aurreko urteetan bezala, eta Nafarroako Gobernuak diruz lagundutako zenbait jarduerak aurreratzeko, besteak beste, Ipoteako zolaketa, argiteria publikoa berritzea, baso jarduerak, Ondare Arkeologiko eta Paleontologikoan egin beharreko lanak, beharrezkoa dela diruzaintzako mailegu bat eskatzea, beste batzuetan egin den bezala, 60.000 € 6 hilabete bitarteko epean, eta Nafarroako Gobernuak emandako diru-laguntzak ordaintzen dituenean, berehala ezeztatuko da mailegu hori.

Udalbatzak, ados egonik, honakoa onetsi du aho batez:

- 1.- Caixari 60.000 euroko mailegua eskatzea. Mailegua Nafarroako gobernuaren diru-laguntza jasotzen denean kitatuko da.

9.- MARIA ESTHER DUFUR OHARRIZEK UDALAREN LURRA EROSTEKO EGIN DUEN ESKAERA

Irigaray alkate jaunak jakinarazi du Maria Esther Dufur Oharrizek eskaera bat aurkeztu duela Udalari metro karratu batzuk erosteko, baina ez duela kopuru zehatzik zehaztu, eta bere etxearen atzealdearen eta Anastasia Reca Garateren oinordekoen belardiaren (5.

poligonoko 153. katastro-partzela) arteko espazioari dagozkio. Gaineratu du lur hori, gaur egun, udal katastroaren arabera, Anastasia Reca Garateren oinordekoen jabetza pribatukoa dela. 2014an, horri buruzko txosten bat eskatu zitzaion Herrilurretako Atalari, eta bertan ondorioztatu zela aurkeztutako dokumentazioarekin D azpipartzela udalarena zela eta akatsa katastroa ezartzean gertatu zela. Hala ere, aurreko Udalbatzak kasua ikertu zuen ustez lurzatien baterakuntza egin zeneko aldaketen ondorio izan zitekeelako.

Idazkariak hitza hartu du eta jakinarazi du aurreko legegintzaldian gaiari irtenbidea ematen saiatu zirela herrilurretako zerbitzuak egindako txostena kontuan hartuta. Izan ere, katastroko teknikaria bertan zela aprobetxatuz, oinordekoei deitu zitzairen, Gloria Urtasun Reca hain zuzen ere, eta herrilurretako zerbitzuaren txostenaren berri eman zitzaion, eta, berak hala eskatuta, kopia eman zitzaion. Urtasun Reca andreak esan zuen aztertuko zuela eta teknikaria joan baino lehen erantzungo zuela, baino ez zuen erantzunik eman eta espedienteak ez zuen aurrera egin.

Udalbatzak erabaki du aho batez:

Lur horren jabetza aztertzea eta Maria Esther Dufur Oharrizek egin duen eskaerari oraindik ez erantzutea, jabetza hori argitu arte.

2) Nekazaritza Azpiegituren Atalari lurzatien baterakuntza egin zenean lurzati horrek izan zituen aldaketen gaineko txostena eskatzea.

10.- HERRILURRETAKO ORDENANTZAREN ALDAKETA (EGUR-LOTEAK)

Irigaray alkateak dio badaudela egurra erretzeko gailurik ez duten etxebizitzak, besteak beste udaletxean zaharberitu direnak. Beraz, paradoxa bat gerta daiteke, hots, bizilagunek egur-loteak aprobetxatzeko baldintza guztiak betetzea baina ez izatea erregai hori aprobetxatzeko elementurik. Hortaz, proposatu du Herrilurretako aprobetxamenduak arautzen dituen Ordenantzaren V. Tituluko, Egur-loteen aprobetxamendua, 51. Artikuluari honako gehitzea:

Udalak egurra erretzeko azpiegituren ez duela modu frogagarrian egiaztatzen duten etxebizitzek, nahiz eta beren familia-unitateek 16. artikuluko baldintza guztiak bete, ez dute aprobetxamendu horretarako eskubiderik izango.

Udalak erabaki du aho batez proposatu den aldaketa hasiera batean onartzea.

11.- OIHAN APROBETXAMENDUA 2021

Irigaray alkate jaunak azaldu du Bidausi mendiko Zakarrola parajea egingo den alertze- eta douglas-entresakaren estadilloa eta balorazioa 18.704 €-koa dela, eta, beraz, bidezkoa dela dagokion salmenta-baldintzen plegua onartzea, espedientearen dagoena.

Udalbatzak erabaki du aho batez Zakarrola-Bidausi lotea saltzeko baldintza plegua onartzea, 2021eko aprobetxamenduari dagokiona.

12.- BAT EGITEA ZERGEN KUDEAKETAN ETA IKUSKAPENEAN NAFARROAKO ZERGA OGASUNAREN ETA NAFARROAKO UDALEN ARTEAN INFORMAZIOA TRUKATZEKO ETA LANKIDETZAN ARITZEKO ESPARRU-HITZARMENAREKIN.

Idazkariak hartu du hitza, eta jakinarazi du Udalak bat egin dezakeela Nafarroako Gobernuak onartutako esparru-hitzarmen batekin, zerga-arloan garrantzia duen informazioa trukatzeko eta zergen kudeaketan eta ikuskapenean lankidetzan aritzeko helburuekin.

Aho batez erabaki da Nafarroako Zerga Ogasunaren eta Nafarroako udalerrien arteko informazioa trukatzeko eta zergen kudeaketan eta ikuskapenean lankidetzan aritzeko esparru-hitzarmenari atxikitzea, eta hartutako erabakia eta hura izapidetzeko sinatutako hitzarmena Nafarroako Gobernuari helaraztea.

13.- EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA ONESTEA (2021-2023)

Irigaray alkateak hitza hartu du eta euskara teknikariak prestatu duen euskara normalizatzeko 2021-2023 epealdiko planaren gaineko informazioa eman du; horretan euskararen diagnostikoa egin ondoren, datozen hiru urtetan gara daitezkeen ekintzak eta proposamenak daude.

Lan-lerroak honakoak izanen dira:

- Euskararen transmisioa bermatu eta handitzea (familia, eskola, euskaltegia)
- Haurren zein gazteen artean euskararen erabilera formala zein informala sustatzea, haiek baitira euskara gehien erabil dezaketanak gure eskualdean.
- Euskararen erabilera handitzea (zerbitzu publikoak, kultura, aisialdia...)
- Euskaldunen konpaktazioa sustatzea, eta, orokorrean, euskararekiko jarrera faboragarriak bultzatzea (mintza-taldeak, euskarazko komunikabideak,...)

Aurkeztutako plana aztertu ondoren, erabaki da aho batez:

- 1.- Euskararen erabilera normalizatzeko plana onestea (2021-2023)
- 2.- Hartutako erabakia euskara teknikariari jakinaraztea, jakinaren gainean egon dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

14.- BESTERIK

Landaketetan zeuden tutu babesgarriak kentzea

Irigaray alkateak jakinarazi du auzolana egin zenean Abrauko birlandaketan zeuden tutu babesgarriak kendu zirela eta hori onuragarria dela bai birlandaketarako zein ingurumenerako; hala ere, Bidausi Mankomunitatearekin harremanetan jarri zela tutu horiek dagokien tokira eramateko baina arazoak sortu direla ez baitago argi zer egin behar den. Gaineratu du Mankomunitateak eta alkatetzak lanean ari direla hondakin horiek deusezteko eta orain Zintronikoko enpresa batekin jarri direla harremanetan.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

San Juan Eguneko ekitaldiak

Irigaray alkateak jakinarazi du festak pandemiagatik bertan behera gelditu baziren ere, hainbat ekitaldi egin zirela osasun neurriak behar bezala beteta, besteak beste elorriak jartzea edo gazta jatea; aurreikusita zeuden beste batzuk bertan behera gelditu ziren, adibidez dianak, eguraldi txarra egin baitzuen. Gazteei eskerrak eman nahi dizkiela gaineratu du, ekitaldietan emandako laguntza dela eta.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Telefono mozketak

Irigaray alkateak jakinarazi du Movistar enpresari bere eta herriko abonatuena ezinezkoa helarazi ziola uztailearen 8tik abenduaren 12ko arratsalde erdira arte izandako komunikazio mozketagatik, eta zerbitzua berehala berrezartzeko eskatu zuen.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Antsobiko ugaldoko pizina.

Irigaray alkate jaunak jakinarazi du joan den uztailearen 14an parte hartu zuela, Otsagabia, Ezkaroze eta Aurizberriko ordezkariekin batera, Osasunbideko teknikariekin egindako bilera batean, ibai-igerilekuen gaiari irtenbideak bilatzeko helburuarekin, eta esan zuela litekeena dela datorren urtetik aurrera uraren kalitatearen analisiei berrekitea, eta, horretarako, presa jarri behar dela laginak hartzeko. Bestalde, harremanetan egon da Babes Zibileko eta Larrialdietako Zerbitzuko zuzendari Jose Javier Boulandier Herrera jaunarekin, baso-suteak itzali behar izanez gero ur-hornidurarako interesgarritzat jotzeko aukera aztertzeko.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Mendiko bazkalekuentzako diru-laguntzak.

Irigaray alkate jaunak jakinarazi du, mendiko bazkalekuen deialdia dela eta, Atalozi, Menditxuri eta Lindusen hobekuntzak egiteko aukera aztertu dela, hau da, itxiturak mantentzea, Ataloztin aska bat aldatzea eta Antufako bideak eta Atalozi eta Urrereka erreken artean doana hobetzea; hala ere, atzera egin da, oso zaila baita deialdian ezarritako puntuaziora iristea.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Bicimugi proiektuan eraztunak egiteko proposamena

Irigaray alkateak jakinarazi du Eurovelo ibilbidea pasatzen den herriei eskatu zitzaizela ibilbide horren inguruko eraztunak aurkeztea eta berak proposatu zuela Zokoeta eta Otsamieta lotuko lituzkeena egitea eta Saroberriko oinezkoentzako bideari jarraipena ematea, Irrintziko etxeetatik kanpinerraino.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Ikasketengatik joan etorria egin behar dutenentzako garraioa eta plazak erreserbatzea laguntzeko sinadura

Irigaray alkateak jakinarazi du eskaera bat sinatu zuela ikasketak direla-eta Iruñera joan behar duten gazteen garraioa bermatzeko Hezkuntza Departamentuari eskatuz, eta Burlatako eta Iturramako institutueta plazak erreserbatzea babestu zuela.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Argien aldaketa.

Irigaray alkate jaunak jakinarazi du MEP (Montajes Eléctricos Pamplona) enpresak Fernandino estiloko sodio lurrunezko lanpara-farolen ordeztu, Villa modeloko leed teknologiko farolak jartzeko lanak bukatu dituela, eraginkortasun energetikoa hobetuz eta argi-kutsadura murriztuz.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Bideak seinaleztatzea

Irigaray alkate jaunak jakinarazi du, bideen ordenantza indarrean sartzearekin batera, horien mugak seinaleztatzen hasi direla, eta seinaleen fabrikazioa Beriaingo Goyo seinaleei esleitu zaiola, 5.953 eurotan.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Urrobi ur-araztegiko emari handiak

Irigaray alkate jaunak jakinarazi du NILSA harremanetan jarri zela berarekin Auriztik araztegira emari handiak iritsi zirela jakinarazteko, eta, beraz, hasiera batean teilatuetako tutuerien ebakuazioak aztertzeko konpromisoa hartu zuela, horren arrazoia izan daitekeen baloratzeko.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Larratutako lurraldeen Kongresua

Irigaray alkate jaunak jakinarazi du irailaren 18an, NUPek antolatutako eta Rosa María Canals Treseras doktoreak zuzendutako larratutako lurraldeei buruzko kongresu batean, lan-saio bat egin zela Berrotxipi eta Berroaundia bisitatuta. Bertan, bazkalekuak berreskuratzeko egindako lanak, haien bilakaera eta erabilera aurkeztu ziren.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Nabarraldek antolatu duen hitzaldi Jardunaldia eta Ondasunaren Europako Jardunaldiak

Irigaray alkateak jakinarazi du bietan parte hartze handia izan dela pandemiaren egoera eta bigarren kasuan izandako eguraldi txarra kontuan hartuta.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Belaguako Angel Oloron aterpera egindako mendi martxa

Irigaray alkate jaunak jakinarazi du irailaren 11n Iruñetik Belaguako aterperaino, Ezkabako Ihesaren GR eta GR11 lotuz, zihoazen mendizaleak Josta-Leku frontoian gaua pasatu behar zutela, baina parte-hartze txikia izan zenez, ez zen egin Hala ere, antolatzaileek eskerrak eman dituzte Udalaren prestutasunagatik eta mendizaleen urteko egutegian martxa finkatzeko asmoa adierazi dute.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Ipeteako Basoberritza.

Irigaray alkate jaunak jakinarazi du GKEak, bazkidearen egunaren barruan, haritzak birlandatzea proposatu duela Ipetea mendiko zuhaitzen berroneratzea berreskuratzeko, eta berak jarriko duela bertako ezkurarekin hazitegietan ereindako landarearen zati bat.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Ipeteako bidearen zolaketa

Irigaray alkate jaunak jakinarazi du iraileko lehen astean Boreste enpresak Ipeteako bidea berritzeko obrak egin zituela, 37.371,41 euroko zenbatekoarekin. Obrak 7.644,36 €-rekin finantzatu ditu Pirinioetako Planak, 20.308,45 €-rekin Industria Sailak eta gainerakoa udalak.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Abeltzaintza azpiegituren obrak

Irigaray alkate jaunak jakinarazi du aurreikusitako obrak egin direla: Antsobiko mahuka eta Soroluzeako bidearen zati bat zementatu eta Orreagako muga itxi, Joalegietatik Kuarentenara.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Hustubide-sareko arazoak Sorginaritzagan eta euri-uren sareko arazoak Zelatariaren etxean

Irigaray alkate jaunak jakinarazi du, urgentziaz, hodiak trabatuta zeudelako, Iraola-Artetari eskatu ziola hodiak garbitzeko eta hodian egoera grabatzeko, arazoaren jatorria

zein den jakiteko. Azterlanaren arabera, egiturazko gabezia bat da, xaboiak metatzea errazten duena, eta, beraz, urtero garbitu beharko dira.

Bestalde, gehitu du Larequi arkitektoarekin eta Infante ingeniari jaunarekin Kanaleburuako euri-uren bilketaren gabeziak baloratzen aritu direla, Zeladorearen etxetik gertu, arazoaren konponbidea aztertzeko.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

AMMA Ibañeta-Bilera

Irigaray alkate jaunak jakinarazi du, PASTD Helburuetako Turismo Iraunkortasunerako Plan Autonomikoan (PASTD) sar daitezkeen proiektuak identifikatzeko deialdiaren barruan, Turismoko Estatu Idazkaritzan aurkeztu dela sabaiaren eta Maisuaren pisuaren birmoldaketa, mendebaldeko Pirinioetako kultura- eta natura-baliabideen balioespen turistikoa egiteko nazioarteko azterketa-zentro gisa. Funtsean, Lindusko hegaztien behaketa eta Zalduako indusketan zehazten da.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Juandeaburre zinegotziak hitza hartu du eta honakoa jakinarazi du:

Bidausi Mankomunitatea-Bilera

Urbaset zabor-bilketaz arduratzen den enpresarekin 2021eko abenduaren 31n amaituko da kontratua. Beraz, kontratua berri egin behar da, 5 urterako, eta 504.000 euro inguruko aurrekontuarekin, 100.000 euro inguru urteko, zerbitzuak gaur egun balio dituen 90.000 euroen aldean.

Era berean, kafe-kapsulekin eta horiek biltzearekin sortzen ari den arazoaren berri eman du, ez baitago argi zer material mota den. Proposatzen da aparte jasotzea eta bereizita eramatea, horretarako edukiontzi bereziak jarriz eskualdeko hainbat puntutan.

Azkenik, jakinarazi du Mankomunitateak 14.600 € jaso dituela honako 5 proiektu txiki aurrera eramateko:

- Emausko trapuketariak bilketa egingo duten egutegia.
- Beirazko pitxerrak ostalaritzarentzako, txorrotako ura kontsumitzeko eta plastikozko botilen erabilera saihesteko.
- Zaraitzu-Eska Mankomunitatearekin batera erosketak egiteko poltsak.
- Plastikoa hobeki birziklatu duten herrientzako saria. Birziklatutako plastikoarekin egindako hiri-altzariak oparituko dizkiete.
- Hondakinak behar bezala bereizteko jarraibideak dituzten erakustokiak instalatzea. Oraindik zehaztu gabeko leku eta egunetan jarriko dira.

15.- ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez daude.

Eta gai gehiagorik ez zegoenez gero, bilkurari bukaera eman zaio egun bereko 21:00etan, eta nik neuk akta idatzi eta fede eman dut.